 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.5	FITXAK INSALUS

A.5. EREMUA - INSALUS

a) Deskribapena

Eremu honetan " Agua de Insalus" enpresa kokatzen da. Herri gunetik atera eta Nafarroarantz doan Gi-2135 errepidearen eskuin aldean kokatzen da, ibaiaren ezker eta eskuin aldeetara. Bi zubik lotzen dituzte eremu barruko ibaiaren bi ertzak.

Eremu honen mugaketa zehatza dagokion fitxan jasota dago.

Bere azalera, gutxi gora behera, 11.874 m²-koa da.

b) Sailkapena:


Hiri lurra kontsolidatua

c) Kalifikazio Orokorra:

Industrialia

d) Helburuak

Alde batetik Lehengo Arauetan A.5 eta U.2 eremuentzat onartutako aprobetxamendua kontsolidatzen da, bi eremuak A.5 eremua izatera pasatzen direlarik. Bestetik, 2003ko uztailean jasandako sutearen ondorioz produkzioko pabiloi nagusia guztiz erre eta eraitsi ondoren, honen berreraikuntzarako baldintzak ezarriko dira.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.5	FITXAK INSALUS

e) Eraikinen erabilera baldintzak, eraikuntza baldintzak eta erabilpen intentsitatea

Erabilera industrialia izango da. Eremu honetan industria bakarra onartzen da.

Lehengo Arauetan onartutako intentsitatea kontsolidatzen da, hau da, guztira eraikitako 7.380 m² onartuko dira eremu honetan.


- Gehienezko altuera teilatu hegal horizontalera: 11,90m
- Teilatua: Isuri bakarrekoa, bikoitza edo laua izango da.
- Solairuetako gutxienezko altuera librea: 2,80 m
- Eraikin berria, ibaiaren ertzetik 2,00 m aldenduko da.
- Eremuari dagokion fitxan zehazten diren lerrokadurak errespetatuko dira.

f) Urbanizazio baldintzak

Espazio publikoen lerrokadura eta sestrak eremu honi dagokion fitxan agertzen direnak izango dira. Oraindik egiteke dauden lagapenak gauzatu beharko dira eta gauzatzen den 100 m² eraikigarri bakoitzeko aparkaleku bat egokitu beharko da.

Ibai ertzean birurbanizazio lanak burutu behar balira, ingurumenaren lehengoratzea bermatu beharko da, Araxes ibaia eta hari lotutako bertako landareriaren funtzio zuzentzailea mantendu, lehengoratu eta sustatzeko neurriak hartuz, lurraldeak espezien fluxua izan dezan laguntzeko.

. Birlandaketak burutzerakoan bertako zuhaitz eta landaretza erabiliko da, landare inbasiboen erabilera saihestuz.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.5	FITXAK INSALUS

. Ibai ertza berreskuratzerakoan, ezpondak egonkortzeko eta lurrazala dreinatzeko, ingeniaritza biologikoko teknikak edo teknika malguak erabiliko dira, paisaian hobeto egokitzen direlako.

. Obrak burutzerakoan, araudi orokorreko bigarren liburuko bigarren kapitulua, ingurumenaren babeserako aurreikusitako neurriak, kontutan hartu beharko da.

g) uholdeek sor ditzaketen kalteak saihesteko hartu beharreko neurriak

. Sotoen eraikuntza mugatuko da eta eraikitzen badira, iragazgaitzak izateko neurriak hartuko dira, bai eta aireztapen guneek uholde mailatik geratzeko neurriak ere.

. Zimenduak, egiturak eta eraikinen itxiturak, uren presio eta supresioari eusteko gaitasuna izan behar dute 500 urteko itzul aldiko uholdetarako.

. Ahal den neurrian eraikinak uren fluxuari paralelo jartzea gomendatzen da

. Behe oinetako azalera itxia ahalik eta txikiena izatea gomendatzen da.


.Goiko solairu eta teilatuetara sarbideak egingo dira

. Saneamendu hodietan itzulera saihesten duten balbulak Jarriko dira

. uretan hondoratu ezin diren gailuak lurrari itsastiko dira(ur tegiak, gasleo tegiak...)

h)Bestelako baldintzak

Insalus eremuaren inguruan, 1968ko uztailaren 15eko Emakida Aginduaren bidez Insalusko ur mineralaren (Erabilgarritasun Publikokoa izendatua) Ustiapen Emakidaren titularra den AGUA DE INSALUS S.A.-ri emandako Babes Perimetro bat ezartzen da. Babes eremu honetan, uztailaren 21eko Minen 22/1973 Legeak dioenari eta babes perimetroan erabilerak

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.5	

erregulatzeko aplikagarri den gainerako araudiak esan dezakeenari so egin beharko zaio.